

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko martxoaren 20a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Narbarte • Zozaiatik eta Legasarako saihebidetaren proiektu alternatiboaren atzetik.

Roberto Casado • Munduko hoberenekin Erroman lehiatuko den flauta jolea

Udaberriaren etorrera

Egutegiaren arabera, bihar hasiko da ofizialki udaberria gurean. Neguaren ondotik natura esnatzen hasiko da, eta harekin batera, bere baitan dituen guztiak.

Batzuentzako ospakizun garaia da; besteentzat, buruhauste galanta, alergiaren bat paraitzen duenarentzat kasu.



Narbarte • Bizilagunen onarpenik gabe

Zozaiatik Legasarako saihesbideak ez du herritarren onespenerik jaso, eta ibilbide alternatiboa aurkeztu diote Gobernuari

Azaroaren amaieran inauguratu zen Belateko tunela. N-121 errepidearen hobekuntza lanen ildotik abiatu zen lan honek izanen du jarraipena epe motzean.



Zozaiatik Legasara doan saihesbideko proiektuak Narbarteko Lakoizketa baserriko lurra hartuko lituzte.

● JAGOBA MANTEROLA

TARTEAN DAUDE BERATIK Enderlatsarako zatia, Larraikaizko tunela, eta Mugairi, Oieregi eta Narbarteko saihesbideak. Azken horretan, baina, bertako bizilagunak Nafarroako Gobernuak aurkeztutako proiektuaren aurka atera ziren. Bertze proposamen bat igorri zioten Gobernuari, eta oraindik ez dute erantzunik jaso.

Belateko tunela irekitzearekin bat, N-121 errepidearen hobekuntza nabariak egin behar zirela jakinarazi zen. Puntu beltzenetako bat errepideak Mugairin, Oieregi eta Narbarten zehar egiten duen ibilbidea da. N-121A errepideak hiru herrigune horiek bakarrik pasatzen ditu Belatek Behobia bitartean, gainerako herrietan saihesbideak egin baitira, Sunbilla eta Beran kasu. Lehentasuna, beraz, hiru herri horietako

saihesbideak izan du Nafarroako Gobernuarentzat. Proiektuaren zirriborroa agertu zuen Gobernuak -ofizialki ez baitago onartua- eta horren arabera, Legasa parera aterako litzateke saihesbidea, Doneztebe aldera jotzeko, eta hor bertze errepidearekin bat egiteko. Bertako bizilagunek, baina, ez dute hasiera-hasieratik begi onez ikusi Iruñetik egin asmo duten errepidea. Gobernuak aurkeztutako proiektuaren arabera, Lakoizketa etxea errepide berriaren eta zaharraren artean geldituko litzateke.

Herritarrek bultzatuta proiektu alternatiboa prestatu zuten, eta horretarako Macla enpresari proiektua egin zezan eskatu zioten. Gabriel Silvak Gobernuak egindako proiektuari zenbait aldaketa egin dizkio, guztiak ere saihesbideak egungo errepidearekin Legasa parean egiten duen loturaren inguruan. Eduardo Gil Bera Narbarteko bizilagunak proiektu berriaren abantailak azaldu dizkigu: «Guk aurkeztutako proiektuarekin lurren mugimendua tikiagoa izanen da, inpakto bisuala ere franko murriz-

tuko da, eta honekin bat ekologikoa. Ibilbidea zelaiztik igaroko denez, ez du maldarik izanen, laburragoa izanen da, eta garrantzitsuena, Lakoizketa etxeko lurra ukituko dituen arren, etxea ez da bi errepideren artean geldituko». Izan ere, Lakoizketa da inguruan labrantzatik bizi den etxe bakantako bat, eta Gobernuak aurkeztutako proiektuak aitzinera eginen balu, landa lurra hainbertze murriztuko lirateke non baserri bizi den zail izango litzatekeen. Narbarte eta Legasako herritarrek aurkeztutako proiektuarekin, Legasako lantegitik ateratzen diren kamioiek irteera errazagoa izanen dute errepidera.

Legasako kontzejua hartu eta Narbarteko ia herritar guztiak alternatibaren alde agertu ziren.

Eskaera abenduaren lehenean auzeratu zuten, baina oraindik ez dute Gobernuaren erantzunik jaso. Gobernuak otsailerako aurkeztu behar zuen proiektua. Oraindik, baina, ez da ofizialki egin den ahotan den egitasmoa. Herritarrek Gobernuaren irmotasuna salatzen dute. «Inoiz ez dira okertzen, euren egitasmoak hoberenak dira, eta okerrera dena, ez daude kaltetuekin hitz egiteko prest».

→ Jon Abril

Altsasu • Dendarien Elkarteak ez dator bat Domingo Lunbierreko plangintzarekin

Altsasuko Dendarien Elkarteak gogor kritikatu du Domingo Lunbierreko plangintza. Besteak beste, herriko elkarten eta jendearen iritzia kontuan hartu gabe egindako plangintza dela diote, eta espekulatzailetzat jo dute egitasmoaren aurrean udalaren jarrera. «Bideragarritasun ekonomikoa besterik ez dute kontuan hartu herriaren bizitza ekonomikoaren eta sozialaren giltzak aukeratzekoan. Herriaren onerako izanen litzatekeen berdegunea egiteko aukera baztertu egin du plangintzak, eta etxebizitzaren eta merkataritzaren gehiegizko esplotazioa aurkeztu du», salatu dute Altsasuko dendariek. Kaleratutako oharrean adierazten dutenez, berriek ez dute horrelako plan bat egiteko aitzakia izan nahi.

Altsasuko dendariek, martxoaren 4an egindako ezohiko batzarrean, Domingo Lunbierreko hirigintza egitasmoarekin bat ez egitea bozkatu zuten. Udalarekin ados daude Domingo Lunbierren zeredo zer egitearekin, baina egin aurretik herriak zer behar duen jakin behar dela diote. «Hori jakiten dugunean, horrek zenbat balio duen eta nola finantza daitekeen aztertu behar da, eta ez alderantziz».

→ Amaia Amilibia

bidean begi

MAITE URKIA



Aurreko arratsalde batean sagar bat janenez leihotik begira nengoela, zeru garbian gorantz zirudien buztan zuriko hegazkin bati so geratu nintzaion, oihanetako txoriak harrapatzeko kamarek egiten dutenaren antzera.

Une batez sagarra jateari utzi nion, goiz hartan berean egunkarian irakurritako berri bat iratzarri baitzitzaidan pentsamenduan.

Agian hain segurua ematen zuen oinazpiko lur hura zeru urdin-urdin hartatik jaustako harriztar batek txiki zezakeela pentsatzeak hotzikara nimitz baina sakona sortu zidan berriro, eta burua astindu behar izan nuen uxatu nahirik.

Geroago, artean ere kitzikan ari zitzaidan pentsamendu temati haren aurrean, ausardiaz janz-

Harri kozkorra

ten den niak kukurrukua altxatu eta hauxe esan zidan: «Hago lasai, asteroide horrek hogeita hamar urte barru jo behar badu danbatekoa lurrean, ordurako laser ikaragarriaren bat asmatuko dinat txiki-txiki eginda uzteko, hori ziur». Bueno, bueno! esan nion, eta orduan tema beste bide batetik joan zitzaidan ihesi, nire gogoaren kontra geldiezinik. Izan ere, zeruaren handiaz ohartu nintzelarik, aspaldian xokoren batean ezkutaturik zegoen zirrarak estutu baininduen.

Betiko galdera, izar eta planetak hain urrunera heltzen direlarik, espazioak amaierarik ba ote duen ere ez dakigularik, zeruko zein tokitan gordetzen ote dira hilen arimak, zerura igotzen direla esaten digutenez?

Galderak ez ninduen bakean utzi denbora luze batean, gorantz sobera begiratzean gertatu ohi den bezala. Erantzun moduan, ezin garbiago sumatu nuen ikara handiagoko sortzen duela goialdeko kanpalekua bilatzeak, ezen ez harri kozkorra gainera etor dakigukeela jakiteak.

«Hago ixilik, neska!», bota zidan berriro besteak, «zorarena dun gela ilunean katu beltza bilatzea, zeren agian katurik ere ez baita izanen».

«Arrazoiak, arrazoiak», esan nion nik.

Hurrengo larunbatean ogiarekin batera erositako egunkariak zioenez, ez omen gaitu laztanduko hor nonbait dabilen harriztarrek. Aski zen. Berria zehatz-mehatz irakurri, irribarre egin eta udaberriko eguzkiak gozatzen jarraitu nuen.

Iruñea

Gaiarre

Antzokia Udalak kudeatuko du maiatzetik aitzina

IRUÑEKO GAYARRE ANTZOKIA Udalaren kargu geratuko da heldu den maiatzaren 3tik aurrera. Azken udalbatzarrean hartutako erabakiaren arabera, fundazio bat arduratuko da kudeaketaz eta antzokirako egitaraua egiteaz. Proposamenaren aldeko botoa Hirukoak (CDN, PSN eta IU) bakarrik eman bazuen ere, proiektuak aurrera jarraituko du. Orain arte Saide enpresa pribatuaren esku zegoen antzokiaren ardura, eta 2003 urtean bukatzen zitzaien enpresari Udalarekin zuen kontratua. Udalak Saiderekin zuen hitzarmena etetea erabaki duenez, Saideri bost urteko kalteordainak eman behar dizkio, eta antzokian lan egiten zuten langileak Udaleko funtzionari izanen dira aurrerantzean. Udalak datozen bost urteotan 11,8 milioi pezeta gehi KPI (Kontsumo Prezioen Indizea) eman behar dizkio Saideri. Fundazioak izaera pribatua izanen du eta alkatea izanen du presidente. Ekintza Kulturaltarako zinegotziak hartuko du lehendakariordetza, eta musika, antzerki eta abesbatza taldeetako ordezkariak batzordekide izanen dira. Hirukoak proiektua onartu arren, UPN eta HB ez datoz bat. UPNren ustez Udalak berak zuzenean kudeatu beharko luke antzokia. HBk, hiriburuko talde kulturalen hitza baztertzten dela uste du.

Lizarrarri •

Ereintza Abesbatza: hamar urte kantu-kantari

Hamargarren urteurrena ospateko hainbat kontzertu antolatu ditu taldeak

A Ereintza abesbatzak hamar urte bete ditu jadanik. Urteurrena ospatzeko taldeak udaberriaren zehar hainbat kontzertu antolatu ditu, kantuzaleen gozamenarako. Ekitaldiak bihar hasiko dira eta zazpi herritako abesbatzak hartuko dute parte. Azken kontzertua Ereintza abesbatzak eskainiko du ekainaren 20an.

Duela hamar udaberri ereindako hazietatik, dagoeneko zuzaitzen adarretako kimuak loratzen ari dira, udaberri oparo baten aurreikuspen gisara. Ereintza abesbatzak hamar urte bete ditu jadanik, eta ereindako haziak eman ditu bere fruituak. Dena den, zitu ederrenak oraindik ematear daude.

Ereintza abesbatza 1988ko martxoaren 3an sortu zen eta konturatzerako hamar urte pasa dira. Joandako urteok aitzaki hartuz taldeak hainbat kontzertu antolatu ditu datozen hilabeteetarako. Lehenengoa bihar izanen da eta azkenekoa ekainaren 20an. Guztira Euskal Herriko zazpi herritako beste hainbeste abesbatza ariko dira kantu-kantari udaberriaren zehar. Kontzertuak, beti ere, San Juan elizan izanen dira 20:45etatik aitzina.

Bihar hasiko dira emanaldiak Hamargarren urteurrena ospatzeko antolatutako emanaldiak bihar hasiko dira. Lehenengo kontzertua Zarautz abesbatzak eskainiko du. Apirilaren 4ean,



Lizarrako Ereintza abesbatza entsaiatzen.

● KRISTINA BERASAIN

berri, lekukoa Etxarri-Aranazko abesbatzak hartuko du. Hurrengo apirilaren 25ean izanen da. Barakaldoko Eskola Cantorume-kokideak kantatuko dute San Juan elizan. Maiatzean berri, kontzertu bakarra izanen da. Hilaren 9an Iruñeko Aizaga ganbara abesbatza hurbilduko da Lizarrara. Omenaldiko kontzertuak ekaineko bi emanaldiekin bukatuko dira. Hilaren 6an Logroñoeko Orfeoiak abestuko du eta zikloa Ereintza Abesbatzak bukatuko du hilaren 20an.

Carlos Gorricho, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen lehendakariaren hitzetan Lizarran bilduko diren taldeen maila oso ona da. «Inor zokoratu gabe, egun Euskal Herrian dauden abesba-

tza onenetarikoak izanen dira Lizarran», azpimarratu du.

Arestian aipatu bezala Ereintza abesbatza 1988an sortu zen Lizarran Ikastolan burutu zen entseu baten ostean. Besterik gabe, kantuan aritzeko gogoak bultzatuta, lehen saiakera hartan 37 lagun bildu ziren. Geroztik 120 lagun pasa dira taldetik. Egun 58 pertsonak osatzen dute Ereintza eta 160 kantu biltzen dituen zerrenda dute. Taldea osatua duten arren, ateak zabalik dituzte hurbildu nahi duen guztientzako. «Hemengo ateak zabalik daude abesteko gogoia eta gaitasun pixka bat duen edonorentzat» diote abesbatzako kideek.

→ Kristina Berasain



**urdai
aren
mintzoa**

Xabier Larraburu

Koadernotxoarekin zorretan

Bekatu larriak egiten ditudanean, koadernotxo batean apuntatzen ditut eta alboan boligrafo gorritz «xabierraldi bat» jartzen dut; nire buruarekin, nire lasaitasun moralarekin, zorretan nagoen seinale. Dizi-plina osasuntsu honi jarraikiz, pasa den astean Laurarekin adulterio bat burutu ondoren (bere senarra New Yorken dago) koaderno hartu eta harridura gelditu nintzen: hogeita bost xabierraldi bete-zeke! Kuriosoa da nola oroi-menaren ahuleziak pilatu egiten dituen! Zirriborrotutako kondena luze hura behin eta berriz erreparatu ondoren bi erabaki hartu nituen: lehendabizikoa, aurten bertan burutu behar nuela xabierraldi bat, eta bigarrena, zazpi edo zortzi bekatu larri (zegozkien xabierraldiekin) txatxatu beharrak zeudela. Total ze! Nerabearen esate baterako. Kotxearekin harrapatu nuen hura. Istripuaren lekutik azeleratzen aldegin nuenean ez al nuen bada erre-trobisoretik ikusi lurretik bere kabuz nola altxatzen zen? Beraz, nik dakidala ez zen hill! Txatxatu.

Larunbatean, beraz, motxila eta makila hartuta Zaragoza etorbideetik abiatu nintzen gaitontzeko peregrinoekin batera. Xabierrera! Dena den (patuaren bitxikeriak) oraindik Iruñeko etxeen artean geundela Laurarekin topo egin nuen. Hura ere, motxila eta makila eskuan, bere koadernotxoaren aginduz Xabierrera zihoan. Pozez elkar agurtu ondoren, hiria utzi baino lehenago kafe bat hartu behar genuela erabaki genuen. Zer esango dizuet ba... oso polita zegoen goizeko argi hartan. Inoiz baino ederragoa bere safariko praka motz haiekin. Inork ez luke esango hiru seme-alaba ekarri dituela mundura. Kafearen ondotik, noski, nire etxera joan ginen eta ohean sartu baino lehen bekatu larri berri bat apuntatu nuen koadernotxoan. «Aldez aurretik?», esango didazue. Bai, aldez aurretik: profetaren ukitu bat izaten baitut batzuetan. ●

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Mendi mutilen ofizio zaharra

Ttipi-ttapa hamabostekariaren azken zenbakia menditara berri ekarri du. Aitor Arozenak idatzitako erreportaiaren bitartez. «Orain hogeita hamar bat urte aunitz zirengure herriak utzi eta Alpeetako eta Pirinioetako mendietara basoan lanean aritzera joaten ziren gazteak. Hemen, baserritik kanpo lantegi haundirik ez, eta han, berriz, jornal polita. Hori bai, eguzkia ateratzen zenetik gorde bitartean eskulanean aritu behar zuten -motoserra 60. hamarkadan sartu zen-, astelehenetik igande eguerdira. Baina lan gogorretan zaildutako gazteak ziren. Ia urte

osoa ematen zuten inguru haietan eta Egu-berriak etxean pasatzera itzultzen ziren. Otsailean mendira itzuli behar zuten, zenbait herritan aitzindu egin zituzten ihaute-riak. Atzerriko oihañetara doan mendituta-larena, ordea, desagertze bidean dagoen ofizioa da».

Izan ere, gaur egun ez da ia inor joaten basora lanean aritzera. Arantzan, adibidez, duela 30 urte ehundik gora lagun ibiltzen ziren Pirinioetako eta Alpeetako mendietan lanean. Horietako bat izan zen Panttaleon Errandonea. «1952. urtean hasi nintzen, ha-

mabortz urte bertzerik ez nuela, eta 1968 urtera artio urtero-urtero joan nintzen. Metroka edo estereoka ordaintzen zuten han eta hemen, baina hemen ez baitzen lanik, hori zen problema, norapaite joan behar zen. Mantenua ere hobexegoa izaten zen», aipatzen du Errandoneak Ttipi-ttapa-ko orrialde-etan. Mendi mutil ibilitako guztiek, bestalde, bat egiten dute hango bizimoduaren gogortasuna aipatzean: «Han ez zen bestarik -diote guztiek-; astelehenetik igande eguerdia bitarte lanean, egunero. Goizean hasi eta gaua bitartean».

Badator udaberria

Naturan ez ezik gizakiarentzat ere hainbat aldaketa ekarririk, udaberria hasiko da bihar

Aldaketa garaia da udaberria. Natura esnatzen hasten da, eta, harekin batera, bere baitan dituen guztiak. Bihar batzuek ongi etorria egingo diote, baina beste batzuk, aldiz, beldur izanen dira naturaren berpizteaz, alergia jasaten dutenak, batik bat.

E Bihar sartuko da udaberria gurean. Neguak lozorroan izan ondotik, naturak beste itxura bat hartuko du. Aldaketa nabaria izanen da, baina ez bakarrik ingurugiroan, batek baino gehiagok eragina sumatuko baitu. Batzuek ongi etorria egingo diote hurren hilabeteetan, eta beste batzuk, aldiz, noiz bukatu zain daude hasi baino lehen.

Horren lekuko dira Jose Mari Satrustegi, euskaltzain eta ikerlaria, eta, Eneko Landaburu, Sumendi Elkarteko mediku eta Nafarroako Azkona herrian den atsedean etxeko kudeatzailea. Satrustegi udaberriari ongi etorria egiteko ohiurretan erreparratzen salatzen da, eta Landaburuk, berriz, bere etxean udaberriko ahuleziak jotako gaixoak izanen ditu.

Satrustegik dioenez, nahiz eta egun gehienak galdauk dauden, eskal usarioan udaberriko ohiurak oso garrantzitsuak izan ziren antzina. Orduan naturaren berdatzea eta biziazen hasiera ospatzen zen, eta horren lekuko izan litezkeen gertakariak gelditu dira. Nolanahi ere, gehienak kristautuak omen daude, udaberrian basoelizetara egiten diren hainbat erromeria lekuko. «Kristautasunaren aurretik baziren erromeriak egiteko toki bereziak. Gehienak izaten ziren mendi tontorretan, hala nola, hemen Mikel Deuna», dio Satrustegik. «Garai hartan sinbologiaz jokatzeko zuten



jendeak. Egun behar zuten mendi tontorren bat eta ondoan kobazuloa. Bere pentsatzen zuten emankortasuna zetoirela berdin pertsonetan abereetan bezala. Orduan ernaltze bat zegoela eta golko zeruko indarrek, tximistak, haizeak eta eguzkiak ernaltzen zuten ama lurra, eta hor gelditu zaitzigu udaberriaren emankortasunaren sinboloak». Kristautasunak festa horiek bereganatu egin zituen, eta egun tokiz kanpo daude Garizumak aurrera edo atzera bota dituelako. Hala ere, bada kristau aurreko kutsurik gorde duen ohiuririk. Nafarroako eskualde batzuetan, Sakana kasu, herriaren erdian jartzen den maiatz zuhaitzarena, hain zuzen ere. Maiatzaren hasieran mendian moztutako pagoa ekartzen da herrira gauetan. Plazaren erdian tente jarri gero, ordurako berdetzen ari den txiboa- ren mutur bat loturik eta puntan ostoa agerian dituela. «Zuhaitza gauza sakratua zen; zainak ama luraren sabelean ditu, eta, gora jotzen duenez, hori zen kultura guztietan emankortasunaren adibidea. Egun egiten dena oso motela bada ere, oraindik gordetzen da leku batzuetan», gaineratu du.

Nekazarien artean gelditu den ohiura da. Oraingo egutegi banaketak sortu duen egun dantza ahaztu gabe, euskaraz urtearen sasoiak bereizteko negua eta uda bakarrik aurkitzen



Lorweta da udaberriaren seinale arginetakoa bat. • LUIS AZANZA

Alergia, udaberri ohiko gaixotasuna

Udaberrian, natura suspertuz bat, gizakiak noizten duen arazo handiena alergia izaten da. Ana Tabar Bideko Amabirjina ospitaleko alergia alorreko burak dioenez, biztanleen %20k dute noizbait alerjiaren bat. Alergia asko dauden arren, udaberriaren ohikoena arnas arazoak dira (rinitisa eta asma), eta horretan ez da ezberdina Nafarroa. Baina zerk eragiten du arnas arazoak? Hautseko akaroek, lorrautsak eta animalien ileak. Hemen, diagnostikatutako 100 kasutik 60tan hautseko akaroari diote alergia, 30tan lorrautsari eta gainetzekoetan etxeko animalien ileei. Alergia berez kalte egiten ez duen zerbaiten aurrean gorputzak ematen duen gehiegizko erantzuna da, eta alergia duenak tentuz ibili behar du udaberriaren. Urtero udaberria etorri dela gogoratzeko Tabarrek kontsultan. Urtero

ezaugarri bereizgarriak egun bero eta hainbat etxetik irtetea, alergia duenak amagabea izaten du: begietan nabariturako du, gorriak edukitzea eta negarra hasiko zaio; surretik ezteula eta arnas estuak. Alergiatik bat ez datozen arren, Tabarrek alergia heredatu egiten duela, alergia izateko kapazitatea heredatu egiten da, izaera genetikoak, eta, bestetik, horretara ingurumen garrantzitsua da oso», azpiko gaitza da gaixoaren buruhausteak, alergia «hobekiago» igarotzeko, gaitza ematen dituzte beti alergologoen zuzenbidean izanen dituzte, eta ekaina izanen dituzte, eta uztailerako joan zaien egunak. Akaroak eta lorrautsak bereizgarriak ezinezkoak dira.

lagun dezake gaixoa. Akaroek alergia dienak saiatu behar du etxea ongi aire-ratzen eta garbitzen, akaroek hezetasuna maite dutelako, eta egungo etxe txikiak eta itxiak egokiak dira hautseko animalia mikroskopikoa bizitzeko. Alergia gehien sortzen duen bigarren elementuak, lorrautsak, lan gehiago ematen du. Ziklo bat du. Goizean lehortzen da eta gramineak botatzen ditu ingurura. Haizeak barreiatzen dituzte, egun haizetsuetan edo eurijasa aurretik kontuz ibili behar du gaixoak. Orduan gomendatzen da, besteak beste, lehoiak ltxtea, eguzki antiajuak erabiltzea eta egun lainotsuetan mendira ez joatea. Gainera, gaixoak urtero medikazioa hartu beharko du sintomak kentzeko. Baina neurriak hartuta ere, nahikoa lan. Lorrautsa eta akaroak ezin dituzte suntsitu, eta urtero arazoak bera izanen da.

dira. Udaberria eta udazkena itsatsitakoak omen dira. «Orduan bi sarrera bakarrik zituen urteak nekazaritzan, bata ereintzakoa eta bestea fruitua jasotzekoa. Bi zatitan dago urtea. Uda zein izango zen, noiz hasiko zen ezin da zahatu ilargiaren egutegitik eguzkiaren pasatu ginelako eta egunak oraindik dantzan daudelako». Udaberriaren sinbologia eta egunen dantza alde batera utzirik, naturaren esnatzea gehien sentitzen duena gizakia bera da. Psikologoak bat ez datozen arren, naturaren berpizteak udaberriko abstenia sortzen du askorengan. Egoera horretan ohikoak dira alergia, buruko mina, depresioa eta deus egin nahi ez izatea.

Gorputzaren erreakzioak logikoak dira

Udaberria aldaketa garaia denez, adituen uste-tan gizakiari udaberrian gertatzen zaiona gorputzaren erreakzio logikoak besterik ez dira. Eneko Landaburu Sumendi elkarteko mediku eta bizi-higiene korronearen jarraitzailearen idurikoz gorputzak erantzun ezohikoak izatea normala da. «Eguraldi aldaketa bat gertatzen da. Gorputz guztiak ez baina batzuek denbora behar dute aldaketara egokitzeko, eta horregatik gertatzen dira hain maiz buruko minak, depresioak eta



J. M. Satrustegi: «Zuhaitza sakratua zen; zainak ama luraren ditu, eta, gora jotzen duenez, hori zen kultura guztietan emankortasunaren adibidea. Egun, motel bada ere, oraindik gordetzen da leku batzuetan»

alergiak». Udaberriaren aldaketa horiek izatea bezain ohikoa da medikuntza tradizionalak horientzat guztientzat medikamenturen bat eskaintzea. Bizi-higienearen korroneak aldarritzen duena aplikatuz, Landaburuk uste du medikamentuek ez dutela sendatzeko gaitasunik eta gaitasun

hori norberaren organismoaren baitan dagoela. «Gizakiak ikasi ikusi behar du nola bizi daitekeen naturarekin orekan, eta saiatu behar du bizitzeko ohiurak aldatzen, hor dagoelako bere arazoan gaikoa». Era berean, Sumendiko partaidearen ustez, garai aproposa da gorputzari astindu bat emateko eta neguko nagiak kentzeko. Askok eta askok gorputz-garbitzak egiten dituzte, udaberriaren odola berritzen dela ez baita esaera hutsa. «Garai ona da gorputza garbitzeko. Fruta eta barazkia janaz, gorputzak badu aukera zikin-erriak kanporatzeko. Gutxi eta garbi janda, pisua galtzen duzu eta gorputzak errazago kanporatzen du kalte egiten diona». Alergiari dagokionez, medikuntza tradizionalak duen ikuspegia zaharkitua dela uste du. Landabururen arabera, alergia heredatu egiten dela eta gaixotasuna kentzeko txertoak eta medikamentuak hartzea beste irtenbiderik ez dagoela esatea ez da egokia. Bizi-higienearen teoriaren jarraitzailearen aburuz, egokiagoa da hipersentiberatasunaz hitz egitea alerjiak baino. «Zergatik bilakatzeko dira sentiberago gorputzaren zati batzuk? Gorputz hori ez dagoelako behar bezala



Ana Tabar «Herrialdean diagnostikatutako 100 kasutik 60tan hautseko akaroari diote alergia, 30tan lorrautsari eta 10etan etxeko animalien ileei»

tratatu. Zu joera batekin jaitzen bazara eta gaizki tratatzen baduzu, sentiberago bilakatuko zara», azpimarratu du. Landabururen iritziz, alergia, beste gaixotasunak bezala, behar bezala tratatuz sendatu daiteke. «Zauritua dagoen norbait jotzen baduzu, erantzun egiten du. Alergiaren erantzuna atsedenearekin, elikadura hobetuz eta ohiura ez egokiak aldatuz desager daiteke», diosku. Alergia bezala, buruko mina eta depresioak gorputzaren beste erantzunak direla gaineratu du. «Udaberria bizkortze eta suspertze garaia da, eta horretan norbanakoaren inkontzientziaz zeresan handia du. Garai honetako depresioak eta buruko minak oroitzapenak sortuak dira. Udaberriak oroitzapen txarrak dakartzio, udaberriaren sentiberatasuna handitzean ustez ahaztua zuten gertatutako ezberrien bat gogoratu datorkiolako». Ildo beretik, udaberriak sortzen duen lan egiteko gogo eskasak eta indar faltak badu izateko arrazoiak.



Eneko Landaburu «Askotan gorputzak indarra barrurantz eramaten du. Udaberriaren naturarekin bat, gorputza urte osorako garbitzen da»

zoiak. «Askotan gorputzak erabakitzen du indarra barrurantz eramatea. Udaberriaren natura indarberritzen den moduan, gorputzak ere badu joera hori, eta urte osorako garbitzen da. Argi gehiago dago, eta horrek nerbio sistema guztia dantzan jartzen du, eta egunak gehiago argitu ahala gorputza bere onera etorriko da», erran du, azkenik. Beraz, udaberria malda ezin igoz egiten duenak uda arte itxaron beharko du, bizitasun handiagoa izateko.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Literaturaren barreneko ibilaldia eliz-egileen bidez (II)

Juan Migel Gurutzeaga Arbila larraundarrak *Calbario santuac* Tolosako Mugerzarenean agertarazi zuen 1886.ean. Madozko erretore honek, *Errosario santearen* lana ere Iruñean atera zuen 1903.ean



Agustin Basterretxea (1700-1761) Izpazter edo Lekeitikon 1700.ean jaioa, josulaguna, Orduñako eta 1756.etik Lekeitiko josulagunen ikastetxeetako errektorea, misionista ere bazen. Bere lanak argitara eman bazituen arren, egun ez zaizkigu iritsi, eta Kardaberaz-iesker ezagutzen ditugu. Honek, bere 1760.eko *Christauaren bizitza*-n jaso zituen gipuzkerara bihurtuak: *Pasioa euscarazco versoetan*, geroxeago *Anima penitente baten negarac* atera zuen, eta azkenik *Jesucristo gure jaunaren Guisonaren acabuco lau gausac*, J.A. Oar batek bizkaierara berrargitaratu zituenak 1881.ean.

Bolibarko apeza zen Frantzisko Apoitaren berri Iturriak eman zuen. *San Joseperen nobenia* egin zuen, 1778.ean. Egile ezezagun batena dugu, ordea, Bilbon 1780.ean ageri *Errosario edo coroa santuban ofreciduco dirtan misterioac saspí dolorosac saspí gozosoac, saspí gloriosoac errepardiduric guero essaten dan moduban, Via Crucis, edo vide sagraduba, Calvariyoico pausuben ofrementubac. Acto edo eguite fede, esperanza, eta caridade-coac*, Bermeoko San Fraiskuko hirugarren ordenerako. Egundaldurik omen dago. Bermeoko San Fraiskukoentzako ere, Nikolas Manuel de la Quadra Montañó Y Villalonen *Doctrina cristinaubarena, eusqueraz apainduba, alic claru eta ondoen gaste nai zarren probechuraco*. 1784.eko eskuizkribua Azkue liburutegian datza. Erdal izeneko egile Bilbon jaio zen 1713.ean eta sermoilari ibili zen. Azalean: «no lo desprecie quin lo heredare, pues me ha costado buen trabajo». Erderaz ere 1784.eko *Exercicio santo de ayudar a bien morir*.

Miraballesko apeza zen Antonio Frantzisko Iturragak -ez nahas Pascual Iturriagarekin-, *Doctrina dominicalac aterac eusquerara* hiru alekitan ondu zuen 1815.ean. Bilboko Azkue liburutegian hau ere. Ber tokian. P.A.Y. akronimoko egile ezezagun baten *Eusquerazco Doctrina Anzuelaco verbamoduan*, 1825.ean.

Juan Nikolas Eetxeberria Iturralde baztandarrak zabalkunde ikaragarriko *Christau doctrina Aita Gaspar Astetec erdaraz escriptua eta orai escuaraz publicatzen duena, cembait gauza aumentaturic Baztango Valleco parroco batec, cristau fielen instruccio-nearen deseyuz* ondu zuen: 1826, 1852, 1859, 1875, 1881, 1887, 1889 -hau Zugarramurdiko erretorea zen Anastasio Etxeberrik eskaturik-, 1895... Egilea Iruñean sortu zen 1796.eko abenduaren 6an. Gurasoak Baztandik anka eginak konbentzio gerratean, nonbaiten Berroetan jaiotzat eman izan da. Berroetako apeza 1820.ean, eta Elizondokoa 1829.ean. Iruñeko San Zerningo erretoretzaz ezin zuen jabetu, herioak Elizondon 1845.eko maiatzaren 13an eraman baitzuen.

Bedaioiko lehenengo abadea zen Manuel Goikoetxearen *Amorezco eta dolozco Jesucristoren pausoac edo Calbario santuac versoan jarriac*, Iruñean, Saturio Bandresco moldetan eguiña, 1863.ean argitaratu eman zen. Perez Goienari jarraikiz, Lizarraga-Ergoienerako sakristian dago.

Juan Jose Erasun Mutuberriaren *Doctrina cristauaren catecismoa guciz ongarai eta arguitu D. Antonio Maria Claret Trajanopolisico Arzobispuaic*

escribittua eta consagratua *Españiatico Patrona Maria Santisimaren conceptio guciz garviari Navarraco sacerdote batác uscarara viurtua beré eta nai duten gucien servituz-raco eta moldizdatua Iruñean, Obispo jaunaren eta Elcárta-sun Uscaren onbalmenarequin Iruñeko Bescansaren moldiztegitik 1881.urtean atera zen,*




Legaz beraren balmenarekin eta sarrerarekin. Erasun Saldisko semea eta erretorea genuen, 1847.ean apezturik, Iruñean ikasi ostean, Doneztebeko erretorea urte-

tan izan zen, sorterrira joan aurretik. Saldisen bertan 1890. inguruan zendua.

Juan Migel Gurutzeaga Arbila larraundarrak *Calbario santuac* Tolosako Mugerzarenean agertarazi zuen 1886.ean. Madozko erretore honek, *Errosario santearen* izenburuko lana ere Iruñean atera zuen 1903.ean. Baliteke Fernando Gurutzeagarekin ahaideturik egotea, Errazkin-go maisua eta 1886.ean zendu zena. Azken honena genuen *El auxiliar para el maestro*, Iruñea, Lorda, 1890.

Justo Albisu Iriarterena dugu *Cristau doctrina aite Gaspar Astetec erdaraz escriptua eta Ultzamaco apezac balle ontan yarduquitzen den usquerara biurtue beren feligresen amorioz*, Iruñen, Erice eta Garcia, 1906. Juan Bautista Aldaz ezkurarrak, berriz, *Cristau doctriña* bat ondu zuen mende hasieran -Tolosa, Mugerza, 1912-. Azkenik, Blas Aiera Indak *Euscal-dun guratsoen arguiya edo cristau doctrina euscarazcoen explicazionea euscal erriaren onaren deseyuz* Iruñean, Aranbururenean eta 1914.ean, agertarazi zuen.

Patziku Perurena



Orentzero eta Mikolas

GAUZA ASKO ESAN DA gure

Orentzero gizajoz, baina, orain arte aditu ditudane-tatik, bat bakarrak ere ez nau txoil ase. Nere irudituan, *Eske Garal* edo *Oles Aro* asmatu horren giroan sartu behar da pertsonal honen inguruko usarioa, baina, gure *Eske Garaia* hagituz ugarria eta zabala da, egun honetara bakarrik mugatzeko.

Dena dela, gaur zortziko moro trazarik ukatu gabe, ikus ditza-gun gure aurrekoek emandako argitasun batzuk. Sebero Altuberen ustez, *Olen-hori Noel* ezagunaren metatesia besterik ez genuke, eta Manuel Lekuona ere, arrazopide horren aldeko zen.

Julio Caro Barojak, ordea, uste zuen, Frantziako ziklo liturgikoan

Oleries deitzen dituzten Egu-berri aurreko zazpi egunak zire-la gure *Orentzero* kontu honen sortzaile.

J. M. Satrustegik, bere alde-tik, euskal usarioan aspaldi haunditik eskeko leloa dierazten duen *Olez* edo *Oles* hitzarekin uztartu zigun Olentzeroren hasierako *Olen-hori*.

Horrez gainera, gehienak bat datoz, hitzaren azken zatiak, (*Orentz*-

ero, *-aro* horrek, aldia edo garaia adierazten duela aitortzeko-an. Neretzako, arrazopide horiek guziek badute beren egiantza, baina, motz gelditzen dira.

Euskal usarioan, *oles egiteak*, holako zerbait esan nahi du: santu edo pertsonaia mitiko baten izen (edo biografi) errukarria inbokatuz (koplatuz) jende izandun guziagan erukia sorrarazi. Horratz erromes, behartsu, alfer, pikaro edo dena delako bagamunduen aspaldiko martingala, endemas kristautasunak *karitate* kontzeptua sortu eta maisuki monopolizatu zuenetik Santiobidez ugaldu zena.

Baina hortara, *Orentzero* horrek, denaz ere, gure *oles+aro* horren hasiera adieraziko luke, izanez ere, abenduan hasi eta San Joanak

arte, urte erdia *oles eginez* bizi izan baita gure herritarrik alpro-jena. Hala eta guzi, *Orentzero* hori *oles aro* bihurtzeko, gehisko behartu dira hor kontuak; izan ere, *Orentzero* baita, nere ustez, misterio honen izen markatu ga-bea edo jatorrizkoa.

Eta eskean egiteko gure modu horrek, noski, oraindik ederki nabari du, endemas Frantzia aldetik, erromes bidea aitzaki, sartutako gizajo itxurako jende talde alderrai, alproja, engainadore haien kutsu negartia. Eta kutsu nabari horrek, hagituz zentzuzko bihurtzen ditu Sebero Altuberen eta Julio Caro Barojaren argibideak, batez ere usarioa nondik sartua dugun ikusteko. Baina etimologia, berriz ere, Satrustegirena bezain ilun geldituzten da, bai *Noel* > *Olen* bidetik, bai *Oleries* > *Olen* bidetik.

Hala ere, orain arte ikasi eta sumatu dudana gatik, ez dut dudarik egiten nik.

Orentzero gurea, aurrez adierazi dudan eskegiro alproja horren eraginez, San Nikolas eta beste antzeko asko bezala, Europako iparraldetik Frantziaren barrena sartua dugula.

Badu gure San Nikolasek, batez ere eskeko kantetan hartzen duen irudi horrek, Orentzeroren antzik'asko. Iparretik hegora, Europako basomutilen zaindari dela esan liteke Nikolas, eta halatsu gure *Orentzero* gizajoa, eta gainera orpoz orpo dabilkete biek Noel.

Horregatik dakit argi ederra eginen litzaiokela Orentzero gureari, San Nikolasek gure artean utzi dituen arrastoak (deadru sonak, sorginkeriak, sineskeriak, eskekantak, elizakoak) denak ongi hartu, eta xehero segituz Ipar Europako muturreraino aztertuz gero.

Izan ere, jakituria eta gizatasuna ez baitira jatorkeria batzuk asmatu eta talgabe haiek predikatuz umotzen, buruko argi guziak itzali arte nork bere ikerlan estzeptikoan segituz baizik.

Nik Nikolas Haundiari ikasia dakit, inglesetik gure gisa «Old Nick» deitzen ziotela deabruari, baina...

Ziria

• Motxorrosolo •

J. M. J. J. Fundazioa


iRITZI TALDEA ERATZEAR DAGO. FUNDAZIOAREN MOLDEA AUKERATU DA. Biziki interesgarria aurreikusten dutena. Aurrerantzean, bakar batek lobby baten partaide gisa aurkeztuko du bere burua. Hasiera-ko zerrendan kolore guztietako *nafarzale*azaltzen dira. Gainera, egokia duzue fundazioarako ustez aukeratu behar duten izena: J. M. Jimeno Jurio Fundazioa. Guzti honen atzetik Bilbo aldeko beste fundazio bat dabil. Lehenbiziko hitzordua egina dute. Ezer onik eka-rriko ahal du?

Roberto Casado

Flauta jolea

«Lehiaketak ez dit bizitza aldatuko»

Erroman, heldu den maiatzaren 29an, VII. Nazioarteko Musika Txapelketan izanen da Roberto Casado flauta jole iruindarra, horretarako lehiaketan eskubidea irabazi berri baitu. Lehiaketan hainbat herrialdeko 3.641 partehartzaile izan ziren, eta Italiako hiriburuan 72 ariko dira nor baino nor. Ez da ausartu zer gertatuko den aurreratzera.



● LUIS AZANZA

s o s l a i a

Roberto Casadok hamar urterekin hartu zuen esku artean lehen flauta. Geroztik, hainbat ordu eman ditu hari doinu goxoenak nola atera ikasten. Orain 23 urte ditu, eta Iruñeko Errotxapea auzoan bizi da. Astean lautan Gasteizera joaten da, Jesus Guridi Kontserbatoriora, flauta eskolak ematera.

Erromako lehiaketarako txartela lortu baino lehen irabazi izan ditu beste txapelketa batzuk: Buffet Crampon Nazioarteko Lehiaketa, Frantzia, eta Manuel Garijo, Espainian, adibidez. Profesional bezala ez bada ere, La Pamplonesa bandan eta Paulino Aramendi orkestran jotzen du noizean behin.

Erromatik bueltan lanean jarraituko du. Ez daki Euskal Herrian segituko duen edo atzerrira joanen den. Abiatuz gero, Frantziara hurbilduko litzateke ikasketak hobetzera. Nolanahi ere, oraingoz oso gustura dago klaseak ematen, eta, ahal duen heinean, heziketa, ikasketak eta kontzertuak tartekatzen saiatuko da.

ka garaikiderik ez zegoen kasik. Musikook flautarako konposaketak egiten ausartu ziren. Horrela, lortu dugu flautarako musikan nafar errepertorio osatu bat egitea.

■ Normandian ari zara ikasten. Nola moldatzen zara ikasteko eta klaseak emateko?

Ahal dudan moduan. Dirua eta denbora dudanean hara joaten naiz, George Salioli irakaslearekin trebatzera. Berak Parisko eskolan egiten du lan eta biraren bat badu ezin gara elkartu. Gure egutegiak uzten digutenean biltzen gara.

■ Hemen ez dago ikasi eta espezializatzeko aukerarik?

Badira irakasle onak, baina

han baino askoz gutxiago. Nafarroan ere maila nahiko ona da baina hoberenak Frantzia aurkitzen dituzu.

■ Ikasi eta kontzertuak eskaintzeaz gain, klaseak ematen dituzu Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan. Kontzertuek ez dute bizitzeko ematen?

Flautak ematen du bizitzeko. Ni flautatik bizi naiz. Dena den, kontzertuetatik bakarrik aurrera ateratzea oso zaila da. Primerakoa izan behar duzu, eta hala ere nahiko lan. Hemen kontzertuak antolatzeak ohitura badagoen arren, oso zaila da.

→ Irene Arrizurieta

A Gaztea bada ere, serioa da oso Roberto. Kafe baten arrimuan, mingaina askatu du. Hasieran denborapasa hutsa zena urteekin ogibide bilakatu zaio, flauta alegia, eta horren inguruko gora-beheraz mintzatu da ausarki.

■ Erroman maiatzaren 29an jokatu den VII. Nazioarteko Musika Txapelketarako sailkatu berri zara. Zein bide jarraitu duzu hara joateko?

Europako egoitza ezberdinetan jokatu den nazioarteko lehiaketa honetara aurkeztea pentsatu nuen. Badira egoitzak Frantzia, Belgika, Italia, Alemanian eta Espainian. Zaragozakoan aurkeztu nintzen, gertuen hura nuelako. Final-zortzi-erenetako sailkatu eta gero, final-laurdenetara pasatu nintzen 9,22ko puntuazioarekin. Lortutako emaitzak final-laurdenetako lehen postua eman zidan. Erromara egoitza guztietako sei puntuazio hoberenak pasatzen ziren eta ni izan naiz horietako bat.

■ Lehiaketak non kokatzen zaitu?

Beti bezala jarraitzen dut. Lehiaketak ez dit bizitza aldatuko eta ez du esanahi berezirik. Flauta ikasketak egiten eta lanean jarraituko dut. Ikasketak martxoaren 27an bukatuko ditut Fran-

tziako Normandia eskualdeko Evreux hirian.

■ Erroman hoberenen artean lehiatuko bazara ere, finantzatzaile bila omen zabilta. Hain gaizki zainduak zaude-te?

Ez da atsegin bidaia. Hegazkinak eta egonaldiak dirua balio dute. Iruñea ordezkatzen noa; beraz, nik uste erakundeak lagundu behar dutela. Nire izenean ez ezik, beraien izenean ere banoa eta lagundu beharko lukete.

■ Erakunderen batera jo duzu?

Iruñeko Udalarekin hitz egin dut, eta baliteke interesatuak egotea. Lehenago ere kontzertuak egiteko eskaintzak egin izan dizkirate. Nafarroako Gobernuarekin ez naiz oraindik mintzatu.

■ Erroman zein asmo dituzu?

Ez dakit zer egingen dudan. Nazioarteko lehiaketa da eta maila handia izanen da. Ez dut inor ezagutzen eta ez dakit nori egin beharko diodan aurre.

■ Flauta ez da ohiko instrumentua. Zergatik aukeratu zenuen?

Gurasoengatik hasi nintzen. Haiek ez ninduten kalean ikusi nahi eta eskolatik kanpo zerbait egin behar izan nuen. Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan solfeo ikasten hasi nintzen zortzi urterekin eta hamarrek flauta jotzen. Flauta aukeratu nuen

beste instrumentu batzuk jotzen ikasteko tokirik ez zegoelako. Etxean inork ez zuen uste ikasketak profesionalak egingen nituenik, baina lanean jarraitu nuen eta gaur arte. Ikasketak urte asko dira, eta egunero gogoz eta seriosunez lan eginez maila ona lor daiteke. Zortzi urterekin kontserbatorioan sartu nintzenean, gehien antzekoa nintzen. Lan eginez gero zerbait lor daitekeelako erakusgarri hoberena neuregan dut.

■ Flautarekin esperimentatzea gustatzen omen zaizu. Bada-go zer jo?

Egungo musikan guztiarekin ari da esperimentatzen. Mende hasieratik hasi ziren esperimentatzen eta gaur egun flauta ordenadoreari uztartzen zaio. Musika guztiak esperimentatu dira: herri musika, jazz, klasika...

■ Zer landu duzu?

XX. mendeko musika gustatzen zait. Nire estiloari hobekien doakiona hori dela uste dut. Beraz, horretan espezializatu naiz batez ere. Musikagile nafarrek egin izan dituzte flautarako lanak, eta nahiko ongi estreinatu ditut. Interpretatu ditut, besteak beste, Koldo Pastor, Martin Zalba, Juan Carlos Etxeberria eta Juan Jose Eslabaren obrak. Beste instrumentu batzuk ez bezala, duela gutxi arte flautarako musi-

BEKARIO!

patxi@earthling.net

MAIKEL
ETA PRIMITIBO

19 20 21 22

Badator ZUBIA!!

Beretan Primitibo horrelakoetan katolikozale amorratua bihurtzen nahi? Biba Santuak eta dagozkien jai egunak!!

Estatu larrikoa? ezta pentsatu ere!! nik nahiago nuke integrista!!

lau egunez lanik egin gabe!! ze gauza zoragarria!!

e...primi? Biba San Joxe!!

Nafar Kronika

Gontzal Agote

Solidarnosc

Aspaldiko eta urrutiko kontuekin hasiko dut poloniar kronika hau.

Larogeiko hamarkada. Gerra hotza puri-purian zegoen eta orduan, orduan bai, argi ikusten zen nor ziren onak eta nor gaiztoak, tartekorik gabe. Polarizazioaren abantaila miresgarriak ziren horiek. Hoztasun armatu horretan Polonia izoztua arretagune nagusietakoa genuen. Gure begi-belarrietara poloniar herritarren borrokaren oihartzunak allegatzen zitzaizkigun etengabe. Eta izen bat nabarmentzen ziguten: Solidarnosc. Elkartasuna. Hedabide handiek sindikatu honen gizon-emakumeen balentrien berri ematen ziguten. Grebak, itxialdiak, manifestazioak, mota guztietako borroak. Dena mirestekoa. Bage-nekien nor zen maltzurren artean maltzurrena: Jaruzelski jenerala.

Iraganetik salto batean orainera. Mehatxuz beteriko egun hotzak atzean geratu dira. Solidarnosc sindikatukoak agintea eskuratu eta berehala langileen etsai bihurtu ziren, arotz biboteduna lantegira itzuli zen eta Jaruzelskiz ez dugu deus gehiago jakin. Solidarnosc eta kapitalismo basatia eskutik helduta, elkartasuna zena insolidaritate bihurtua. Polonian bezala beste hainbat lekutan, elkartasunaren garaia igaro da; hitza geratu da soilik, baina hori ere lapurtu dute. Bitartean Euskal Herri tropikal honetan (askotan) elkartasunak elkartasun izaten jarraitzen du, bere ondorio guztiekin. Horien artean, epailearen aurrean eseri behar, azkenaldiko epaiketarik surrealisten. Eta kable moztuak ez bezala, askoren baitan elkartasunaren kateak tinko jarraitzen du. Hainbeste urteren buruan eta GKE guztien gaintik elkartasunak mila aurpegi izaten jarraitzen du Euskal Herrian. Hau ez da Polonia. Nahiz eta Jaruzelski piloa bizi gure artean.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- ▶ **Altoain:** 7 notas 7 colores taldeak joko du gaur, Artaia aretoan. Kontzertua 23:00etan izanen da.
- ▶ **Gares:** Ktulu eta Brutal Thin taldeek kontzertua emango dute bihar, Fundamental aretoan, 23:00etan.

ZINEMA

- ▶ **Iruñea:** Karrikiri elkarteak antolatutako zinemaldiko egitarauaren barruan, *etirako sua* eskainiko da gaur Golem zinematokian, 20:00etan. Sarrerak 450 pezeta balio du.
- ▶ **Iruñea:** Olite zinematokian *Espejismos* pelikula mutua emango da asteartean, 20:00etan. Filmak irauten duen bitartean, Josetxo Fernandezek pianoa joko du. Sarrerak 600 pezeta balio du.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Zangoza:** Nafarroako basoak erakusketa ikusteko aukera dago Kultur Etxean, etzi arte.

BESTELAKOAK

- ▶ **Iruñea:** Datorren ostegunean Itoitzekiko Elkartasuna taldeko kideek hitzaldia eskainiko dute AEKren Irrintzi euskaltegian, 20:00etan.
- ▶ **Iruñea:** Datorren asteartean Bixente Serrano Izko historialariak *Nafarroako Historia Orokorra* hitzaldia eskainiko du Txantreako Kaskallueta Kultur Elkartearen, 19:30etan.
- ▶ **Iruñea:** Liburuaren Eguna dela eta, datorren ostegunean Literatura gelako partaideek poesia errezitaldia eskainiko dute 20:00etan, Gaztediaren Etxean.
- ▶ **Iruñea:** Udalak eta Gaztediaren Etxeak zazpi ikastaro antolatu dituzte elkarlanean: joga, euskal dantzak,

aerobic-a, margolaritza, buztina, norberaren sormena garatzeko teknikak eta autobabesa. Ikastaroak apirila eta ekaina bitartean egingen dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, Gaztediaren Etxera joan behar da.

▶ **Iruñea:** Udalak Iruñeko Gazteentzako Literatur Lehiaketa antolatu du. Lehiaketa bi sailetan banatzen da: olerkia eta narrazio laburra, eta gaztelaniazko zein euskarazko

lanak aurkez daitezke. Hamalau eta hemezortzi urte bitarteko Iruñeko gazteek parte hartu ahal izanen dute. Lanak apirilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira Gaztediaren Etxean. Informazio gehiago nahi izanez gero, Gaztediaren Etxera jo.

▶ **Lizarran:** Nafarroako Bertsolari txapelketa izango da Musika Eskolan, 17:00etan. Bertsoetan ondoko bertsolariak ariko dira: X. Legarreta, X. Sil-

veira, O. Idoate, E. Landa, M. Altzuart eta A. Olano.

- ▶ **Iruñea:** Zaldiko Maldikon *Nekazaritzaren erronka berriak* hitzaldia eskainiko du datorren asteazkenean, 20:00etan, Marta Agirrezabala EHNE nekazari sindikatuko kideak.
- ▶ **Zangoza:** *Euskara eta eleaniztasuna* izanen du mintzagai Xabier Garagorrik datorren asteazkenean, 20:00etan, Kultur Etxean.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

OHEZANKO ALTZARIAK

Zertarako hartu diseinuzko drogak, diseinua gure droga baita?

OHEZANKO ALTZARIAK
eta zazi fite guatzera